# CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA COORDINADORA DE ONGD DE EUSKADI

En Bilbao a 14 de mayo de 2020

## REUNIDOS

De una parte, Dª ITZIAR URTASUN JIMENO, Concejala Delegada del Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao, habilitada para la formalización del presente documento por Acuerdo de la Junta de Gobierno de 13 de mayo de 2020

De la otra, Dª SOFIA MARROQUIN GUERRERO, Presidenta de la Coordinadora de ONGD de Euskadi.

## EXPONEN

Que el Ayuntamiento de Bilbao actúa en el ejercicio de las competencias que en materia de Cooperación al Desarrollo reconoce el art.17, apartado 37 de la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y resto de normas sectoriales aplicables.

Que el Ayuntamiento de Bilbao considera que el municipio puede llegar a ser un espacio adecuado para promover un proceso de cooperación que supere las dificultades, que hasta ahora han marcado la cooperación del norte con los países del sur, creando y facilitando canales de comunicación y participación en los proyectos de cooperación al desarrollo y sensibilización.

Que desde 1996 el Ayuntamiento de Bilbao tiene una partida presupuestaria específica para la Cooperación al Desarrollo como parte del

compromiso por una cooperación descentralizada que surge del convencimiento de que no es responsabilidad exclusiva de las instancias gubernamentales, sino que también la sociedad civil y las instituciones municipales pueden y deben ser agentes de cooperación con el Sur en la lucha diaria por un mundo más justo y solidario.

Que por su parte la Coordinadora de ONGD de Euskadi nació en el año 1988 con el objetivo de cooperar, reflexionar, dialogar y trabajar para que las actuaciones de las ONGD miembros sean siempre lo más coordinadas, coherentes, adecuadas y respetuosas posibles. Actualmente cuenta con 79 ONGD socias y forma parte desde el año 2001 de la Coordinadora ONG para el Desarrollo-España junto a 89 ONGD y otras 16 Coordinadoras Autonómicas.

Que la Coordinadora de ONGD de Euskadi, que celebró en 2018 su 30 aniversario, es consciente que la principal tarea que debe desarrollar ante la sociedad vasca es la sensibilización, la incidencia social y política para la mejora de las realidades que se viven en otros países del mundo y el apoyo al trabajo de las ONGD del País Vasco.

Que el Ayuntamiento de Bilbao y la Coordinadora ONGD de Euskadi cuentan con una prolongada experiencia de colaboración mutua, a través de la financiación de proyectos de Sensibilización y la colaboración en distintas actuaciones desde 1997. Esta colaboración mutua se ha materializado en la firma de un Convenio de Colaboración anual entre las dos entidades en los años 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018 y 2019 por los cuales se ha financiado el funcionamiento de la estructura básica técnica de Bizkaia.

Que el Ayuntamiento de Bilbao y la Coordinadora de ONGD de Euskadi creen conveniente la colaboración conjunta y la implicación efectiva en la

continuidad de una estructura básica técnica en Bizkaia y de una persona especializada en el ámbito de la equidad de género que contribuya a la información, coordinación, formación y acompañamiento de las ONGD miembros, a las nuevas ONGD así como a las personas que quieren colaborar de alguna manera con las ONGD en la construcción de un mundo justo y solidario.

En virtud de lo expuesto por las partes, reconociéndose capacidad y competencia suficiente para intervenir en este acto, proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración de acuerdo con las siguientes

## CLAUSULAS

### PRIMERA: OBJETO DEL CONVENIO

Constituye el objeto del presente Convenio establecer el marco de colaboración entre el Ayuntamiento de Bilbao y la Coordinadora de ONGD de Euskadi para el **Fortalecimiento de la estructura básica en Bizkaia y de Género de la Coordinadora de ONGD de Euskadi** durante el año 2020, con el objetivo de apoyar a la Coordinadora para la representación, dinamización, fortalecimiento, apoyo y coordinación del tejido asociativo del territorio en el ámbito de Cooperación al Desarrollo. Los resultados de esta colaboración serán los siguientes:

1. Mejorar las capacidades de las organizaciones miembro y de la propia Coordinadora para conseguir sus objetivos de manera coordinada, eficaz, eficiente, con coherencia interna y equidad de género.

2. Incidir en la puesta en valor de las políticas de cooperación, buscando el reconocimiento social y político que requieren, abogando por el cumplimiento de la legislación vigente, la educación para la transformación social y la coherencia de políticas, incorporando la perspectiva de género en todas las actuaciones.

3. Difundir un discurso sobre la importancia de la defensa de los Derechos Humanos y la dignidad de todas las personas, articulando espacios de trabajo con otros colectivos sociales.

4. Difundir en la sociedad y en los medios de comunicación las causas y consecuencias de las desigualdades entre el Norte y el Sur, desde un enfoque de inclusión y de necesidad de afrontar desafíos y retos globales también desde la local.

5. Colaborar con el Ayuntamiento de Bilbao en cualquier otra actividad en el ámbito de Cooperación al Desarrollo que se realice de mutuo acuerdo.

Se adjunta como ***Anexo 1*** el programa que la entidad ha formulado. .

**SEGUNDA: PRESUPUESTO DEL PROYECTO Y SUBVENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO.**

El presupuesto anual de este proyecto asciende a 18.000 euros.

El Ayuntamiento de Bilbao colaborará con la realización de este proyecto concediendo una subvención a la Coordinadora de ONGD de Euskadi por importe de 18.000 euros, que será abonada en un único pago y por anticipado, sin exigencia de garantía alguna a la entidad beneficiaria.

El presupuesto del programa subvencionado mediante este Convenio se adjunta en el ***Anexo 2***.

El presupuesto de este proyecto es compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados. El conjunto de aportaciones en ningún caso podrá superar el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente. La Coordinadora de ONGD de Euskadi tiene la obligación de comunicar la existencia de otras ayudas recibidas.

La entidad beneficiaria tiene la posibilidad de subcontratar parte de la actividad subvencionada. Si la actividad concertada con terceros excede del 20% del importe de la subvención y dicho importe es superior a 60.000 €, deberá formalizarse por escrito y autorizarse previamente por el Ayuntamiento. En ningún caso podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe una vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el artículo 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

Constituye infracción penal, según el art.308 del Código Penal:

- La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a 10.000 € falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido
- En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos, en una cantidad superior a 10.000 €, a fines distintos de aquellos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

**TERCERA: COMPROMISOS DE LAS PARTES**

La Coordinadora de ONGD de Euskadi pondrá todos los medios necesarios para el cumplimiento y desarrollo de lo establecido en el presente convenio y será responsable ante el Ayuntamiento de Bilbao del cumplimiento del destino de la financiación, actuando como interlocutor o interlocutora de la entidad aquella persona que la Coordinadora designe a tal efecto. La titularidad de los resultados obtenidos en el desarrollo de la actividad corresponde a la Coordinadora de ONGD de Euskadi, siendo obligación de ésta reconocer la colaboración municipal.

El Ayuntamiento de Bilbao colaborará con la Coordinadora de ONGD de Euskadi mediante la concesión de una subvención por importe de 18.000 € con destino a la financiación de los gastos derivados del fortalecimiento de la estructura básica en Bizkaia. A tal efecto, las partes acuerdan el abono de la subvención mediante la modalidad de pago anticipado, total o parcial, sin exigencia de garantía. El abono de la subvención no se llevará a cabo en tanto la asociación beneficiaria tuviese pendiente de justificar alguna subvención cuyo plazo de justificación hubiera ya finalizado. Tampoco se procederá al abono si la asociación beneficiaria no hubiese reintegrado alguna subvención anterior, cuando así se le hubiese requerido.

En caso de incumplimiento por parte de la Coordinadora de ONGD de Euskadi será de aplicación lo establecido a tal efecto en la normativa de subvenciones.

**CUARTA: JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

En el plazo máximo de tres meses desde la realización de las actividades objeto del convenio, la Coordinadora de ONGD de Euskadi deberá justificar

ante el Ayuntamiento de Bilbao el destino de la subvención concedida, mediante la presentación de la siguiente documentación:

- Memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- El balance de gastos e ingresos correspondientes a la ejecución del programa.
- Cuenta justificativa de los gastos incurridos en la ejecución de las actividades subvencionadas que incluirá, a efectos de acreditación, facturas y demás documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos:

  Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad. Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

  - Identificación de la persona beneficiaria
  - Descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

  Así mismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican.

  Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector público para el contrato menor (15.000 € + IVA para la contratación de servicios y suministros, y 40.000 €+IVA para el caso de obras), la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de

diferentes empresas proveedoras previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostentan la condición de profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la presentación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

- Los costes indirectos para los que, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la

concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

- Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.
- La documentación relativa a la Memoria justificativa, deberá ser aportada en papel, así como remitirse por correo electrónico al Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas a la direcciones: cooperacion@bilbao.eus y mperez@bilbao.eus
- En el caso de que el Ayuntamiento de Bilbao tenga otras obligaciones de justificación económica frente a otras instituciones, la Coordinadora de ONGD de Euskadi se compromete a colaborar en todo lo necesario para dar cumplimiento a dichas obligaciones.
- La entidad subvencionada deberá justificar la totalidad del gasto previsto en las actividades subvencionadas y no sólo la aportación municipal, en el caso de que aquel excediera del importe de la subvención.
- Cuando las actividades hayan sido financiadas además con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberán detallarse, con indicación del importe, la procedencia y aplicación de los mismos.
- El incumplimiento total o parcial de la obligación de justificar la subvención conllevará la obligación de reintegro de las cantidades no justificadas.

3. La Coordinadora de ONGD de Euskadi hará la adecuada difusión de la colaboración del Ayuntamiento de Bilbao en cuantos programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo sean desarrolladas, directa o indirectamente, por la Secretaría Técnica en Bizkaia, o en las actividades objeto de este convenio a través de la inclusión del Logotipo del Ayuntamiento de Bilbao en la documentación que realice, difunda y remita por el medio que sea (papel, electrónico, u otros) o de cualquier otra forma

que ambas partes estime oportuna, facilitando al Ayuntamiento el ejercicio de la facultad de supervisión previa de dicho material.

**QUINTA.- SUBCONTRATACIÓN CON TERCEROS**

En conformidad con el Art. 29. 2. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la entidad beneficiaria únicamente podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad cuando la normativa reguladora de la subvención así lo prevea.

En ningún caso podrá concertarse/contratarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con la entidad beneficiaria (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el artículo 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

**SEXTA: APLICACIÓN DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES**

La Coordinadora de ONGD de Euskadi ha de cumplir, en materia de equidad de género, las disposiciones relativas a la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y especialmente en lo referente a los principios generales regulados en los artículos 3,16, 18.4 y 23, por ser de aplicación directa a las entidades que suscriban convenios con las Administraciones Públicas Vascas.

**SEPTIMA: MODIFICACION DEL PROGRAMA**

Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la delegación del área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

Se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

**OCTAVA: COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

Quedará establecida una comisión a los efectos de dar seguimiento y evaluar la correcta marcha del proyecto **Fortalecimiento de la estructura básica en Bizkaia y de Género de la Coordinadora de ONGD de Euskadi** en el marco del presente Convenio. Dicha comisión estará compuesta por una persona en

representación del Ayuntamiento de Bilbao y otra en representación de la Coordinadora.

**NOVENA: DURACIÓN DEL CONVENIO**

El Convenio extenderá su vigencia desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2020.

**DECIMA: PROTECCION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL**

Las partes se comprometen a respetar en todo caso lo regulado por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de Carácter personal, y disposiciones concordantes.

**DECIMO PRIMERA: AUTORIZACIÓN DEL GASTO**

A fin de hacer frente al compromiso económico derivado de la formalización del presente documento existe una autorización de gasto aprobado por acuerdo de la Junta de Gobierno de fecha 13 de mayo de 2020 por importe de 18.000 € con cargo a la Aplicación Presupuestaria: 2020.32000.23190.4819900, PEP 2020/00189

Y en prueba de conformidad firman por duplicado las dos partes el presente Convenio, en el lugar y fecha arriba indicados

| | |
|---|---|
| **Sofia Marroquin** | **Itziar Urtasun** |
| Presidenta de la Coordinadora | Concejala Delegada |

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# LANKIDETZA HITZARMENA, BILBOKO UDALAREN ETA EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEAREN ARTEKOA

Bilbon, 2020 maiatzaren 13an.

**BILDURIK:**

Alde batetik, Itziar URTASUN JIMENO andrea, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza eta Jaietako zinegotzi ordezkaria, agiri hau formalizatzeko gaikuntza duena Gobernu Batzordeak 2020ko maiatzaren 13ko erabakiaren bidez.

Bestetik, SOFIA MARROQUIN GUERRERO andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea.

**ADIERAZTEN DUTE**

Bilboko Udala EAEko tokiko erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluaren 37. atalak eta sektore honen barruan aplika daitezkeen gainerako arauek garapenerako lankidetzaren arloan aitortzen dizkioten eskumenak baliatuta ari da.

Bilboko Udalak uste du udalerria espazio egokia izan daitekeela zailtasunak gaindituko dituen lankidetza-prozesu bat sustatzeko; izan ere, orain arte, zailtasun horiek erabakigarriak izan dira iparraldearen eta hegoaldeko herrialdeen arteko lankidetzan, garapenerako lankidetzako eta sentsibilizazioko proiektuetan komunikazio- eta partaidetza-kanalak sortuz eta erraztuz.

1996. urteaz geroztik, Bilboko Udalak berariazko aurrekontu-partida bat du garapenerako lankidetzarako, lankidetza deszentralizatuaren aldeko konpromisoaren parte. Lankidetza hori gobernu-instantzien erantzukizun esklusiboa ez baina zibilak eta udal-erakundeek ere Hegoaldearekin lankidetzan aritzeko eragile izan daitezkeela eta izan behar dutela sinetsita sortu da, mundu bidezkoago eta solidarioago baten aldeko eguneroko borrokan.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea 1988an sortu zen, lankidetzan aritzeko, hausnartzeko, hitz egiteko eta lan egiteko, kide diren erakundeen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak izan daitezen beti. Gaur egun GGKEen Koordinakundeak 79 bazkide ditu, eta 2001az geroztik Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundeko kide da, 89 GGKErekin eta Erkidegoetako beste 16rekin batera.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak -30. urteurrena bete zuen 2018an- badaki euskal gizartearen aurrean dituen zeregin nagusiak direla sentsibilizazioa, munduko beste herrialde batzuetan bizi diren errealitateak hobetzeko gizartearen eta politikaren eragina garatzea eta Euskadiko GGKEen lana babestea.

Bilboko Udalak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak esperientzia luzea dute elkarren arteko lankidetzan, sentsibilizazio-proiektuak finantzatuz eta 1997tik hainbat jarduketatan lankidetzan arituz. Elkarlan hori bi erakundeen arteko urteko lankidetza-hitzarmenak sinatzean gauzatu da (2006., 2007., 2008., 2009., 2010., 2011., 2012., 2013., 2014., 2015., 2016., 2017., 2018. eta 2019. Urteetan). Hitzarmen horien bidez, Bizkaiko oinarrizko egitura teknikoaren funtzionamendua finantzatu da.

Bilboko Udalak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak uste dute komenigarria dela Bizkaian oinarrizko egitura tekniko bat eta genero-ekitatearen arloan espezializatutako pertsona bat elkarlanean aritzea eta modu eraginkorrean inplikatzea, kide diren GGKEei, GGKE berriei eta GGKEekin nolabait lankidetzan aritu nahi duten pertsonei informazioa, koordinazioa, prestakuntza eta laguntza emateko, betiere mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa egite aldera.

Alderdiek adierazitakoaren arabera, eta egintza honetan esku hartzeko gaitasun eta eskumen nahikoa dutela elkarri aitortuta, lankidetza-hitzarmen hau formalizatzen dute, honako klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

**BAT: HITZARMENAREN XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da Bilboko Udalaren eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen arteko lankidetza-esparrua ezartzea, **2020. urtean Euskadiko GGKEen Koordinakundearen oinarrizko egitura eta genero-egitura indartzeko**, lurraldeko elkarte-sarea ordezkatu, dinamizatu, indartu, babestu eta koordinatzeko orduan koordinakundeari garapenerako lankidetzaren esparruan laguntzeko. Lankidetza horren emaitzak honako hauek izango dira:

1. Kide diren elkarteen eta Koordinakundearen beraren gaitasunak hobetzea, helburuak modu koordinatuan, eraginkorrean, barne-koherentziaz eta genero-berdintasunez lor ditzaten.

2. Lankidetza-politikak balioan jartzea, behar duten aitorpen sozial eta politikoa bilatuz, indarrean dagoen legeria, gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta politiken koherentzia betez, eta jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatuz.

3. Giza eskubideak eta pertsona guztien duintasuna defendatzearen garrantzia aintzat hartzen duen diskurtsoa zabaltzea, beste kolektibo sozial batzuekin lan egiteko espazioak artikulatuz.

4. Gizartean eta hedabideetan zabaltzea iparraren eta hegoaren arteko desberdintasunen kausak eta ondorioak, betiere inklusioaren ikuspegitik eta erronka globalei tokiko ikuspegitik aurre egiteko premiaren ikuspegitik.

5. Bilboko Udalarekin lankidetzan jardutea garapenerako lankidetzarako eremuko bestelako jardueretan, alde biak adostuta bada.

*1. eranskinean* erakundeak formulatu duen programa gehitu da. .

**BI: PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA BILBOKO UDALAREN DIRULAGUNTZA**

Proiektu honen urteko aurrekontua 18.000 eurokoa da.

Bilboko Udalak proiektu hau gauzatzen lagunduko du, eta, horretarako, 18.000 euroko dirulaguntza emango dio Euskadiko GGKEen Koordinakundeari. Dirulaguntza hori ordainketa bakarrean eta aldez aurretik ordainduko da, erakunde onuradunari inolako bermerik eskatu gabe.

Hitzarmen honen bidez dirulaguntza jasoko duen programaren aurrekontua *2. eranskinean* adierazitakoa da.

Proiektu honen aurrekontua bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua. Aportazio guztien zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jarduerak duen kostua baino handiagoa. Handiagoa balitz, itzuli egin beharko litzateke kostu horretatik gorakoa. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak nahitaez jakinarazi behar du jasotako beste laguntza batzuk daudela.

Erakunde onuradunak aukera du diruz lagundutako jardueraren zati bat azpikontratatzeko. Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, idatziz formalizatu beharko da eta Udalak baimendu beharko du aldez aurretik. Ezingo da inolaz ere hitzartu edo itundu diruz lagundutako jardueren gauzatze osoa edo partezkoa Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren debekuetakoren baten pean dauden pertsonekin edo entitateekin, ez eta onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin (lotura dagoela joko da Araudiaren 68.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan); ezta ere Dirulaguntzen Lege Orokorraren 29.7 artikuluan aipatzen diren gainerako pertsonekin ere.

Arau-hauste penala izango da, Zigor Kodearen 308. artikuluaren arabera:

- Administrazio publikoetatik 10.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek lortzeko betekizunak faltsutuz edo haiek lortzea eragotziko luketen datuak ezkutatuz.
- Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jarduera bat egitean, funts horietatik 10.000 euro baino gehiago erabiltzea dirulaguntza edo laguntza eman zen helburuak ez diren beste batzuetarako.

**HIRU: ALDEEN KONPROMISOAK**

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak behar diren baliabide guztiak jarriko ditu hitzarmen honetan ezarritakoa betetzeko eta garatzeko, eta Bilboko Udalaren aurrean finantzaketaren xedea betetzeko ardura izango du, eta erakundearen solaskide izango da koordinatzaileak horretarako izendatzen duen pertsona. Jarduera garatzean lortutako emaitzen titulartasuna Euskadiko GGKEen Koordinakundea izango da, eta hark udalaren lankidetza aitortu beharko du.

Bilboko Udala Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin lankidetzan arituko da 18.000 euroko dirulaguntza emanez, Bizkaiko oinarrizko egitura indartzeak eragindako gastuak finantzatzeko. Horretarako, alderdiek adostu dute dirulaguntza ordainketa aurreratu, oso edo partzialaren bidez ordaintzea, bermerik eskatu gabe. Justifikatzeko epea amaituta entitateak justifikatu gabeko dirulaguntzaren bat badu, ez zaio deialdi honetako dirulaguntzaren kopurua ordainduko. Aurreko dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatuta entitateak itzuli ez badu, ez zaio dirulaguntza hau ordainduko.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ez-betetzeren bat egiten badu, dirulaguntzen araudian ezarritakoa aplikatuko da.

**LAU: DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA**

Hitzarmenaren xede diren jarduerak egin eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak Bilboko Udalaren aurrean justifikatu beharko du emandako dirulaguntza zertarako erabili duen. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Urteko memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehaztuz.
- Programa gauzatzeari dagozkion gastuen eta diru-sarreren balantzea.
- Diruz lagundutako jarduerak gauzatzean egindako gastuak justifikatzeko kontua. Horien artean aurkeztu beharko dira programa gauzatzeko aurreikusitako epearen barruan egindako gastuen fakturak eta gainerako egiaztagiri originalak. Horretarako, honako hauek bereiziko dira:
  Programa gauzatzearekin zuzenean lotutako kostuak; horiek osorik justifikatu beharko dira. Gastuak justifikatzeko agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

  - Onuradunaren identifikazioa.
  - Gastuaren xedearen deskripzioa, zuzenean lotuta egongo dena programa gauzatzearekin.

Era berean, justifikaziorako aurkezten diren dokumentuak justifikatzen den programari buruzkoak baizik ez dira izango.

Diruz lagunduko den gastuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa (15.000-€ + BEZa zerbitzuen kontratazioetarako eta horniduretarako eta 40.000-€+BEZa obrak direnean) baino handiagoa bada, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileren eskaintza eskatu behar du zerbitzuok kontratatu aurretik. Salbuespenak: lehenengoa, kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan horiek emateko, eskaintzeko edo hornitzeko erakunde nahikorik ez egotea eta bigarrena, gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin izana. Aurkeztutako eskaintzen artean -dirulaguntzaren eskarian edo justifikazioan erantsi behar dira horiek- eraginkortasunaren eta

ekonomiaren irizpideen arabera aukeratuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez bada, memoria egin behar da eskaintza hori aukeratu izana beren-beregi justifikatzeko.

Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsonek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

- Zeharkako kostuak: halakoetarako, berariaz eskatzen ez bada, ez da beharrezkoa izango agiri bidez justifikatzea. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrita eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa. Justifikazioa egiteko orduan, dirulaguntza jasotzeko oinarri gisa entitateak aurkeztu duen aurrekontuko portzentaje berbera izango da zeharkako kostuetan onarturiko portzentajea, eta justifikatutako zuzeneko gastuen gainean aplikatuko da.

- Langile-gastuak nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira.
- Justifikazio-memoriaren dokumentazioa paperean aurkeztu eta posta elektronikoz bidali beharko da Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailera, helbide hauetara: cooperacion@bilbao.eus eta mperez@bilbao.eus

- Bilboko Udalak justifikazio ekonomikoa beste erakunde batzuen aurrean aurkeztu behar izanez gero, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak betebehar horiek betetzeko behar den guztian laguntzeko konpromisoa hartzen du.
- Diruz lagundutako erakundeak diruz lagundutako jardueretan aurreikusitako gastu guztia justifikatu beharko du -eta ez soilik udalaren ekarpena-, baldin eta horrek dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen badu.
- Jarduerak, gainera, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, horien zenbatekoa, jatorria eta nola aplikatu diren zehaztu beharko da.
- Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra osorik edo zati batean betetzen ez bada, justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli beharko dira.

4. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak behar bezala zabalduko du Bilboko Udalaren lankidetza, Bizkaiko Idazkaritza Teknikoaren bidez, zuzenean edo zeharka garatzen dituen edozein motatako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketetan, edo hitzarmen honen xede diren jardueretan. Hain zuzen ere, Bilboko Udalaren logotipoa sartuko du egiten, zabaltzen eta bidaltzen duen dokumentazioan (paperean, modu elektronikoan edo bestelakoetan), edo alde biek egokitzat jotzen duten beste edozein eratan. Aldez aurretik material hori ikuskatzeko ahalmena Udalari ematen diote.

**BOST. - BESTE BATZUEI AZPIKONTRATATZEA**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 29.2 artikuluaren arabera, erakunde onuradunak jarduera osorik edo zati batean azpikontratatu ahal izango du bakar-bakarrik dirulaguntzaren araudiak hala aurreikusten badu.

Diruz lagundutako jarduerak guztiz edo zati batean gauzatzeko, ezin izango da inondik ere itunik/kontraturik egin Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin, entitate onuradunarekin loturaren bat duten pertsona edo entitateekin (Erregelamenduaren 68.2. artikuluan adierazitako kasuetan joko da lotura dagoela) eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7. artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

**SEI: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN-PRINTZIPIOA APLIKATZEA.**

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, genero-berdintasunaren arloan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari buruzko xedapenak bete behar ditu, eta, bereziki, 3, 16, 18.4 eta 23. artikuluetan araututako printzipio orokorrei buruzkoak, euskal administrazio publikoekin hitzarmenak sinatzen dituzten erakundeei zuzenean aplikatzekoak baitira.

**ZAZPI: ALDAKETAK EGITEA PROGRAMAN**

Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, baimena eskatu behar zaio Bilboko Udalari idatziz; Udalak beren-beregi eman behar du horretarako baimena.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuan eta kronograman izango duten eragina zehaztu beharko da. Gobernu Batzordeak dagokion sailaren ordezkaritzari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Helburu orokor eta berezietan aldaketak egitea.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako aldakuntzak (partiden arteko aurrekontu-aldakuntzek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Dirulaguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa, berriz, justifikazioaren unean onartu ahal izango da, betiere onarpen horrek ez badakar hirugarrenen eskubideak kaltetzea.

**ZORTZI: JARRAIPEN BATZORDEA**

Batzorde bat ezarriko da, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Bizkaiko oinarrizko egitura eta genero-egitura indartzeko proiektuaren jarraipen eta martxa egokia ebaluatzeko, hitzarmen honen esparruan. Batzorde hori osatuko dute Bilboko Udaleko ordezkari batek eta Koordinakundeko ordezkari batek.

**BEDERATZI: HITZARMENAREN IRAUPENA**

2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du hitzarmenak.

**HAMARGARRENA: DATU PERTSONALEN BABESA**

Alderdiek konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta horrekin bat datozen xedapenetan araututakoa errespetatzeko.

**HAMAIKA: GASTURAKO BAIMENA**

Dokumentu hau formalizatzeak dakarren konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, 2020ko maiatzaren 13ko erabakiaren bidez baimena eman da 18.000 eurotako gastua onartzeko, aurrekontuko aplikazio edo partida honen kargura: 2020.32000.23190.4819900, PEP 2020/00189.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, hitzarmen honen ale bina sinatu dituzte goian adierazitako lekuan eta egunean.

**Sofia Marroquin**
Koordinakundeko presideneta

**Itziar Urtasun**
Zinegotzi ordezkaria